

JUANTXO-TXIKI PANPIN ETA ROBOT

Umeak giza-indarra barruan dauelako, bere buruari eragiteko aalmena eta gaitasuna be ba-dauko. Aalmen eta gaitasun orreik, ez dauke oraindiño orretarako trebetasunik. Indar txikiak izanik, osotasunerako egiñak ba'dira be. Egunen baten indar-orreik aunditu eta zabaldu egingo dira.

Barruko argala dau Juantxo-txikik eta orrexek eskatzen dautso kanpotik etorriko jakon agindua, motorra ibiltzen ipinteko. Agintze ori umeak gogoz artzen dau berez. Eta ori olan izanik, esan daikegu panpin eta roboten antza badauela.

Barriri esango dogu lenago esana, ez dala jaió panpin izateko; ez-eta robot izateko be. Bearkizun ori adiñakin gutxitzen da, askatasun egarria sortzen dan neurrian.

* * *

Gizatasunera eltzen dan neurrian, Juantxo-txikik bere mendeko izatea maitatzen dau eta kanpotik dator-kiozan aginteak, ez ditu gogo onez artuko.

Gizon izan nai dau Juantxo-txikik.

Bere barruko askatasunaren jabe dan gizon osoa.

Askatasun ori barik ez dago ez gizon eta ez emakume osorik.

Zure seme-alabak zapuzterik nai ez ba'dozu, eurakin zer jokabide darabiltzun ondo aztertu.

* * *

Ordu orrek joten dauanean, gaur eguneko gazteek askatasun osoa nai izaten dabe, oraindik orren jabe zateko gaitasunik ez ba'daukoebe. Alan be, askatasun-egarria bearrezkoa dau bere azken mugara elduko ba'da.

Zein jokabide artu?

Estu-estu lotu ala sokarik gabe larrera bota?

Ertz batetik bestera alde aundiegia dago. Ortxe ekin bearco dozu soka-tiran.

* * *

Zeure gonai lotuta euki ba'dozuz oraiñarte, lokarriak lasaitzen asi bearco dozu eta askatasun-bidean lagundu. Irakatsi askatasun ori zelan erabilli. Bizian zear Juantxo-txiki berak zaindu bearco dau bere burua. Oraintxe bertan asten ez ba'da ori ikastén, ez dau sekula ikasiko eta aretarako gai ez da sekula izango. Zure menpean euki dozuz seme-alabak asieran alan bear ebelako; baiña, beti zure menpean eukiteak ez dautse kaltea baiño ekarriko. Zu nortasun aundikoa eta jenio gogorrekoa, izanik Juantxo-txiki beti zure esanetara eukiten ba'dozu, auldu egingo dozu eta txorimalo indargabea biurtuko jatzu.

* * *

Bearrezkoa jako Juantxo-txikiri menpeko izatea.

Euki menpean bear dauan neurrian. Bear dauan arte eta bear dauan bestean. Ortik kanpora, ez.

* * *

Robot-antzeko da Juantxo-txiki biziaren asieran; baiña, robot-antzeko izateari itzi bear dautso bere sasoián. bizia aurrera doakion eran. Bizia zuzendu bear jako askatasun bidean, robot-antzeko izan ez dedin bizian zear.

Badira baztarretan gizon eta emakumeazko robot-antzekoak eta "andere" ta panpin izateari sekula laga ez dautsoenak.

Noren erruz?

Nok jakin. Aldietan, gurasoen erruz.

Nortasun aundiko gurasoak arrisku ori dauke; euren umeai nortasuna kentzeko arriskua.

Umeak ezitea, euren nortasuna sortaraztea da.

Sortarazten laguntzea.

Ez dot uste lan txiki eta zeia danik.